



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Lizitazioaren iragarkia

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Sukarrieta, 2024ko maiatzaren 24a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela, urteko **Birtualizazio, Biltegitratze, SAN eta Backup azpiegituraren administrazio eta euskarri zerbitzurako**.

Azpiegituraren heldutasun maila dela eta, kudeaketa zerbitzu bat behar da. Zerbitzu hori ezin dute bere gain hartu barneko langileek, denbora faltagatik eta teknologia bakoitzeko expertise zehatza ez izateagatik. Egoera hori izanik, Birtualizazio, Biltegitratze eta Backup azpiegitura kudeatzeko zerbitzu bat eskatzen du.

2. ENTREGA ETA MARTXAN JARTZEA

Zerbitzua kontratua sinatzen den egunetik aurrera hasiko da.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den **hileko gehieneko** eskaintza ekonomikoa **mila eurokoa da (1.000,00 €)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa hileroko egingo da, eta fakturak jaulki eta 60 egunera ordainduko dira.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doikuntza teknikoa	%40
Hobekuntzak	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak, ivelez@azti.es helbide elektronikoa, eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **datorren 2024ko ekainaren 7ko 12:00ak arte**.

Lizitazaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Nori: Cesar Idokiliz

Tel. 34 656 78 49 78

Helbide elektronikoa: cidokiliz@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 10 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundeak, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundea www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratatzeke Barne Araudiaren arabera arituko da.

- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeke aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFZ: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lop@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinarazita. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu kontrol agintaritza eskudunari".

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

IRISMENA: KUDEATU BEHARREKO INGURUNEAK ETA AKTIBOAK

Lehenik eta behin, zerbitzuaren jarduera eremua definitzen da, kudeatu beharreko ingurune eta aktiboak definituz:

INGURUNEA	AKTIBOA	FUNTZIOA
ZERBITZARIAK	Derio ESX zerbitzariak	Birtualizazio zerbitzariak
	Pasaia ESX zerbitzariak	Birtualizazio zerbitzariak
	Sukarrieta ESX zerbitzariak	Birtualizazio zerbitzariak
BILTEGIRATZEA	Netapp Fas 2720a + Derio Lenovo DH400	Biltegitratzea Blokea eta fitxategia
	Sukarrieta Netapp Fas 2720a	Biltegitratzea Blokea eta fitxategia
	Pasaia Netapp Fas 2720a	Biltegitratzea Blokea eta fitxategia
BIRTUALIZAZIOA	Derio ESS PLUS KIT VWARE	Zerbitzarien birtualizazioa
	Pasaia ESS PLUS KIT VMWARE	Zerbitzarien birtualizazioa
	Sukarrieta ESS PLUS KIT VWARE	Zerbitzarien birtualizazioa
BACKUP	ARCserve UDP Software	Software Backup Vmware
	ARCserve UDP 0365	Software Backup 0365
	Appliance 9240DR	Hardware helmuga Backup
	Derio One Xafe 4512-216	Hardware helmuga Backup
	Pasaia One Xafe 4512-216	Hardware helmuga Backup
	Backup zerbitzariak	Hardware helmuga Backup

Oharra: Bezeroak kontratuaren xedekotzat jotzen duen edozein aktibo gehigarri zerbitzuan sartuko da kostu gehigarririk gabe.

Zerbitzua hasteko data: 2024ko ekaina

Zerbitzua amaitzeko data: 2025eko ekaina



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

Zerbitzua antolatzeko zutabeek ezaugarri hauek izan beharko dituzte gutxienez:

ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA		
Lantaldearen egitura	Service Manager + 2. eta 3. mailako euskarria	Service Manager: Zerbitzuaren kudeaketa, lehen mailako arreta eta zereginak banatzea eta eskalatzea.
		2. eta 3. mailak: Service Managerrak adierazitako zereginak egitea.
Zereginen antolamendua	Prebentzioko zereginak	Monitorizazioa eta berrikuspina. Lan prediktiboa. Eguneraketak. Probak eta baliozkotzeak. Eskaerak.
	Zeregin zuzentzaileak	Antzemandako edo jakinarazitako gertakariak konpontzea.
	Zeregin ebolutiboak	Azpiegituraren garapena bultzatuko duten aukera berrien bilakaera: Konfigurazioa optimizatzea, funtzionalitate berriak hedatzea. Eskaerak.
Komunikazio kanalak	Bezero eta hornitzailearen arteko komunikazioa	Helbide elektronikoa, telefonoa.
	Ticketinga eta reportinga	Bezeroaren lan metodologiara egokitzea edo proposamen propioa.
Dokumentazioa eta jarraipena	Zerbitzuaren jarraipena	Hileko Jarraipen Bilerak. SLA.
	Jarraipenaren dokumentazioa	Jarraipen bilerako akta.
	Azpiegituraren dokumentazioa	Dokumentazio nagusia eguneratzea.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ESKATUTAKO ZEREGINAK

Hauek lirateke zerbitzuaren irismen gisa eska daitezkeen gutxieneko zereginak:

SARTUTAKO ZEREGINAK				
	ZERBITZARIAK	BILTEGIRATZEA	BIRTUALIZAZIOA	BACKUP
Prebentziozkoak	Aktiboen firmware eguneraketak	Aktiboen firmware eguneraketak	Lizentzien bertsioen eguneraketak	Backup aktiboen firmware eta softwarearen eguneraketak
	Alerten monitorizazioa	Alerten monitorizazioa	Alerten monitorizazioa	Backup Joben berrikuspena
	Checklist Revision	Checklist Revisión	Checklist Revision	Backup gordailuen berrikuspena
	Ahalmenaren eta hazkundearen analisia	Ahalmenaren eta hazkundearen analisia	Errendimenduar en analisia	Errendimenduar en eta leihoen analisia
	Errendimenduar en analisia	Errendimenduar en analisia	Erabilgarritasun probak	Ahalmenaren eta hazkundearen analisia
	Erabilgarritasun probak	Erabilgarritasun probak		Errekuperazio probak ingurunearen eta berreskurapen motaren arabera
Zuzentzaileak	Gertakarien eta eskaeren arreta eta kudeaketa	Gertakarien eta eskaeren arreta eta kudeaketa	Gertakarien eta eskaeren arreta eta kudeaketa	Gertakarien eta eskaeren arreta eta kudeaketa
	Fabrikatzaileekin eskalatzea eta ebaztea	Fabrikatzaileekin eskalatzea eta ebaztea	Fabrikatzaileekin eskalatzea eta ebaztea	Fabrikatzaileekin eskalatzea eta ebaztea



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Ebolutiboak	Funtzionalitate erabilgarri berrien analisia eta hedapena	Funtzionalitate erabilgarri berrien analisia eta hedapena	Funtzionalitate erabilgarri berrien analisia eta hedapena	Funtzionalitate erabilgarri berrien analisia eta hedapena
	Prebentziozko analisiaren ondoren konfigurazioa hobetzeko proposamena	Prebentziozko analisiaren ondoren konfigurazioa hobetzeko proposamena	Prebentziozko analisiaren ondoren konfigurazioa hobetzeko proposamena	Prebentziozko analisiaren ondoren konfigurazioa hobetzeko proposamena
	Arkitektura bilakatzeko edo aldatzeko proposamenak	Arkitektura bilakatzeko edo aldatzeko proposamenak	Arkitektura bilakatzeko edo aldatzeko proposamenak	Arkitektura bilakatzeko edo aldatzeko proposamenak



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

SLAk ETA ESTALDURA

Honako SLA eta estaldura hauek eskatzen dira

Ingurunea	Estaldura	SLAen deskribapena	Proposatutako SLA
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Prebentzioko zereginak	Egunero
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Zeregin zuzentzaileak-gertakari kritikoa	Erantzuteko denbora: 1 ordu
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Zeregin zuzentzaileak-gertakari larria	Erantzuteko denbora: 2 ordu
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Zeregin zuzentzaileak-gertakari moderatua	Erantzuteko denbora: 8 ordu
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Zeregin ebolutiboak	Analisiaren arabera, hobekuntzak detektatzea eta egingarritasuna
Zerbitzariak, Biltegiatzea, Birtualizazioa eta Backupa	8hx5d	Eskaerak	Erantzuteko denbora: 8 ordu

Zerbitzuaren hornitzaileari urtean 600 orduko dedikazioa eskatuko zaio gutxienez.

Zerbitzua ematen duen hornitzailearen laguntza teknikoko zentroak 120 kilometro baino gutxiagoko distantziara egon beharko du AZTIk erabiltzaileei IT azpiegitura zerbitzuak ematen dizkien 3 zentroetatik: Derio, Sukarrieta eta Pasaia.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ZIURTAGIRIAK

Zerbitzurako izendatutako Service Managerrak, bezeroaren solaskide tekniko nagusia izango denak, ziurtagiri hauek izan beharko ditu nominalki, lizitazio hau argitaratu aurretik:

- ✓ Lenovo system rack and tower servers
- ✓ Lenovo storage controller options
- ✓ Netapp ontap nas fundamentals
- ✓ Netapp ontap data protection administration
- ✓ Netapp ontap snapcenter fundamentals
- ✓ Netapp ontap select Installation and deployment
- ✓ Arcserve Certified Engineer - UDP
- ✓ Vmware Data Center Virtualization
- ✓ VMware Desktop Mobility

10. BESTE BATZUK

- Esleipendunak (erakunde juridikoa, erakunde juridikoen elkartea, pertsona indibidualak, pertsonen elkartea...), baita lizitazioari erantzuteko edo lizitazioaren xedea betetzeko parte hartzen duten beste erakundeek edo pertsonak ere, hautagaitza aurkeztu duten edo ez alde batera utzita, konpromisoa hartzen dute lortutako informazioaren konfidentziasuna gorde eta mantentzeko eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ezagutzen eta lortzen duten informazioa ez diete parte hartu ez duten langileei edo hirugarrenei erakutsi, jakinarazi edo ezagutaraziko.
- Informazio konfidentzialtzat jotzen da esleipendunak eta/edo AZTI Fundaziotik kanpoko erakunde edo pertsonak, lizitazioari erantzuteko edo kontratua gauzatzeko, modu bisualean, ahoz, zuzenean edo zeharka, lortzen duten edozein informazio, besteak beste, informazio zientifiko, tekniko, finantzario, legal, fiskal eta komertziala, negozio eredu eta estrategiak, “*know-how*”, bezero eta bazkide posibleen izenak, proposatutako edo azterketa fasean dauden edonolako proiektuak eta eragiketak, datuak, algoritmoak, txostenak, planoak, merkatuko proiektzioak, laneko analisiak eta dokumentuak, bildumak, konparazioak, azterketak eta, oro har, eskuratutako informazio guztia, bai kontratua gauzatu aurretik lortutakoa, bai ondorengoa.
- Konfidentziasun betebeharrak eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak indarrean jarraituko dute informazio konfidentziala jende guztiak dakien gauza ez den bitartean, eta egoera hori ez da izan behar informazio konfidentziala eskuratu duten esleipendunak eta/edo erakunde edo pertsonak beren betebeharrak bete ez izanaren ondorio.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Esleipendunari dagokionez, kontratua amaitu aurretik, bitartean edo ondoren eskuratu duen informazio konfidentziala isilpean gordetzeko eta ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko kontratua betetzen denean. Esleipendunak kontratua gauzatzean, modu independentean edo AZTIrekin batera, lortutako edo sortutako informazio konfidentziala (lortutako emaitzak) edo horren zati bat bakarrik erabili ahal izango du kontratu hau garatzeko, eta ez du beste erabilerarik egingo.

Esleipendunak modu erreserbatuan erabiliko du informazio konfidentziala eta ez du zabalduko ez jakinaraziko, eta esleipendunarekin duten harremanagatik, informazio hori eskura eduki dezaketen edo eduki behar duten bere langileei, bazkideei, azpikontratatuak eta beste edozein informazioa eskuratzeko sarbidea murriztu beharko die, konfidentzialtasuna betetzeko beharra dutela ohartarazita. Esleipendunaren langileek, bazkideek, azpikontratatuak edo hark emanda informazio konfidentzialaren berri izan duten pertsonak betebeharrak hori betetzen ez badute, esleipenduna izango da erantzulea.

Nolanahi ere, erabat debekatuta dago kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden informazio, datu eta dokumentuetara sartzea, eta nahitaezkoa da ezagutzen direnak isilpean gordetzea.

Esleipendunak ezin izango du Informazio Konfidentziala erabili, ez zuzenean, ez hirugarrenen bidez: a) edozein eragiketa komertzialetan hasi, eskaini, negoziatu, kontratatu edo sartzeko, edo horrekin lor daitekeen edozein onura lortzeko b) produktuak, soluzioak, zerbitzuak eta know-howa garatu eta, hala badagokio, teknikoki hobetzeko c) patenteen bidez, erabilgarritasun modeloen edo jabetza intelektuala eta industrialak babesteko beste edozein sistemaren bidez, produktuak, soluzioak, metodoak eta abar babesteko.,

- Litzitzio honen kontratua gauzatzearen ondorioz esleipendunak edo horrek eskatuta diharduen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok –laneko lotura izan edo ez– lortutako emaitzen gaineko eskubide guztiak AZTI Fundazioaren titulartasunpekoak eta bakarrik horren menpekoak izango dira, muga geografikorik edo denborazko mugarik gabe, emaitzatzen hauek hartuta: produktuak (letra tipoaren kodea, algoritmoa, softwarea, hardwarea, plataforma digitala, aplikazioak, etab.), zerbitzua (kontsultoretza, aholkularitza, digitalak, etab.), dokumentazio teknikoa edozein formatutan (txostenak, fluxu diagramak, datuak, etab.), soluzioak (digitalak, software plataforma, programak, aplikazioak, etab.) eta/edo informazioa, horien aterakinak edo erreplikak barne. Emaitzen, sortutako ezagutzaren edo sor daitekeen edozein jabetza intelektual edo industrialen edozein erregistroren gaineko ustiapen eskubideak eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo horien ondoriozko emaitzen, ezagutzaren edo jabetza intelektual edo industrialaren erregistroaren gainekoak AZTI Fundazioarenak izango dira, eta, beraz, edozein aktibo ukigarri eta ukiezinen ustiapena, edozein dela ere horren forma edo izaera, babestuta egon edo ez, baita horien ondoriozko eskubide guztiak ere, AZTI Fundazioarenak izango dira.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Esleipendunak ezin izango du AZTI Fundazioak emaitzen gaineko edozein eskubide eratorri babestearen aurka egin, eta ezin izango du emaitzarik zabaldu edo argitaratu, salbu eta AZTI Fundazioak baimen idatzia ematen badu eta baimen horren baldintzak betez. AZTI Fundazioak edozein erregistro bulegotan emaitzak babestea edo erregistratzea erabakitzen badu, egileen egiletza aitortuko da, bai AZTI Fundaziokoak badira, bai enpresa esleipendunekoak badira, baldin eta erregistratutako garapenean parte hartu badute.
- AZTI Fundazioak eskubidea izango du emaitzak aldatu, transferitu, entregatu, banatu edo hirugarrenei banatzeko, helburu komertzialekin edo ez, edo behar duen edozein jarduera egiteko. Halaber, esleipendunak AZTI Fundazioari emaitza osoak eman beharko dizkio (adibidez, letra tipoaren kodea, etab.), eta AZTIk, horien jabe den aldetik, zuzenean edo hirugarrenen bidez, emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sustatu ahal izango ditu, eta hobekuntzak eta hortik eratorritakok AZTIren jabetza eskusiboa izango dira.
- Esleipendunak aitortzen du, kontratua gauzatu aurretik, AZTI Fundazioa hauen jabe dela: produktuaren edo soluzioaren ideia eta kontzeptua/prototipoa, produktuak edo soluzioak izan behar duen funtzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta interkonektibitatearen diseinua, datuak (datu motak, jatorria, kudeaketa eta tratamendua, etab.) eta know-howa (AZTI Fundazioaren aurretiazko ezagutza). Horrela, AZTI Fundazioak, aurretiazko ezagutzaren eta emaitzen titularra den aldetik, zuzenean edo zeharka ustiatu ahal izango ditu, berak iritzi bezala.
- Esleipendunak ezin izango ditu, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, emaitzak ezein pertsona fisiko edo juridikori transferitu, bitarteko elektronikoaren bidez edo beste modu batean, eta ezin izango ditu emaitzak aldatu, itzuli, alderantzizko ingeniariaritzara aplikatu, deskonpilatu, saldu, transferitu, azpilizentziatu, argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzean lortutako emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sortu. Esleipendunak, beraz, ezin izango du AZTI Fundazioaren negozio estrategia mugatu dezaketen emaitza lehiakorak (produktuak, soluzioak, zerbitzuak, dokumentazio teknikoa) merkatura eramateko ekintzarik egin.
- Emaitzak erabiltzeko beharrezkoa denean (adibidez, letra tipoaren kodea, softwarea, aplikazioak, etab.), esleipendunak kontratu honen aurretiko ezagutzaren lizentzia ez-esklusiboa eta besterenezina emango dio AZTI Fundazioari, lizitazioan ezarritakoaren gaineko gainkosturik gabe. Kontratua amaitzean entregatutako emaitzak (produktuak, soluzioak...) guztiz funtzionalak, operatiboak eta beste batzuekiko independenteak izan behar dira, eta ez dute inolako mugarik ekarriko emaitzen erabilerari dagokionez, ezta erabiltzeko kostu gehigarriak ere.
- Lizitazio honetan informazio konfidentzialaren konfidentzialtasunari eta ez erabiltzeari buruz ezarritako baldintza guztiak, baita jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei eta emaitzen eta sortutako ezagutzaren gaineko ustiapen eskubideei dagokienez ezarritakoak ere, gailendu egingo dira erakunde



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

esleipendunarekin ondoren sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan egon daitekeen edozein akordioaren gainetik.

- Esleipendunak onartzen du AZTI Fundazioaren izenaren edo deituraren titulartasuna eta merkatuan dituen produktu edo zerbitzuen bereizgarri diren zeinu bereizgarri guztiena AZTI Fundazioarenak direla eta hala izaten jarraituko dutela. Esleipendunak ez du inolako ekintzarik egingo, ezta AZTI Fundazioaren zeinu bereizgarrien baliozkotasunari eragin diezaiokeen neurririk hartuko ere, eta konpromisoa hartzen du ez erregistratzeko edo eskatzeko, ez bere izenean ez hirugarren baten alde, AZTI Fundazioaren izen komertzial, domeinu izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarririk edo horien antzekorik, baldin eta AZTI Fundazioaren jarduera, prestazio, produktu edo establezimenduarekin nahasmendurik sor badezakete.